

(I) ELHEKETA ASTE HINTAKO SOLAS-GAIA.

- 1 - Eñautek nola maitatzen zituen bere illobak?
- 2 - Zoin ilhoba hautatu zuen bere ondoko?
- 3 - Erakuszagune leisea maitasuna ardentzat?

(II) DONADORA 3

Eta bere baitan egina zuen Domingoren seme- etarik batzuk zuela bere artaldea. Ainitz urtez bere ilobak maitatu zituen, denak berdin, denak haren seme-alabak izan balire bezala. Maitatzen zituen, bainan batere mindulinkeriarik gabe, sanoki, gizonki. Bere ideia bazuen, harek ere, haurren hazteko moldeagarrak gainean.

Haurrek tipidanik bizitzen ikasi behar dutela zion, heren heinean. Gero egiazko bizian, bizi han-dian sartzen direlarik, ontsa heziak dira. Biziaren berri badakite ordukotz. Eta ez dira orduan sobera harrituko, mundua gaixto, neke eta idorxko atxemaiten badute. Berak ikusiak eta frogatuak zituen gauzez mintzo zitaken. Bere haur denbora hola iragan zuken. Eta bazakien bizi goixtiar horren balioa.

Ilobak handitzetan ari zirclarik behatzent zuen zoinek erakusten zuen artzaingoko gosturik hoberena, zoinek ekartzen zituen haren dohainak, haren begietako sua. Hiru mutiko gehienak, etzazkon iduritu haren segidaren hartzeko kapable zirela. Beraz Luis hautatu zuen, ilobetan gaztena.

Hamabortz urtetan berekin ereman zuen borturat.

Atsegin ukana zuen Luis haren iduria agertzen ohartu zelarik, berak ardentzat zuen amodio ezin utziksoarekin.

Luis bortua maite zuen. Etzen beldur gau ilu-

narkin hango oihan beltzeta gaindi ibiltzeko ardi errebelatu baten bila. Eñautek zion, Luis odolean zuela, harek bezala, ardiene amodioa.

«Bainan ez da menturaz ni bezala donado geldituko, denborak kanbiatuak baitira.»

Bazketarat jausteko irian ardi bat galdu zuten. Luis goizeko bietan sartu zen etxolan, bezpera guzia ardiaren xerka ibilirik. Oseba ohean etzanik zagon, bainan begiak hetsi gabe, here ilobaren beha.

«Atxeman duka?»

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

- 31 - Izen balire. 32 - mintza zitaken.
- 33 - iragan zuen 34 - etzagkor edurrite.
- 35 - IZAN - Sup. Eventuel 3 ème forme
(si j'avais été)

Ne	izan banitz	= si j'avais été
Hi	izan bahitz	= si tu avais été
Zu	-ii- bagine	= si vous aviez été
Hura	-ii- balitz	= s'il avait été
Gu	-ii- bagine	= si nous avions été
Ziek	-ii- baginertz	= si vous aviez été
Hek	-ii- balire	= ils avaient été

32 - IZAN - Potentiel imparfait.

Ni	izan nirekeen	= je pouvais être
Hi	-ii- hirrekeen	= tu pouvais être
Zu	-ii- zintezkeren	= vous pouviez être
Hura	-ii- ziteken	= il pouvait être
Gu	-ii- gitezken	= nous pouvions être
Ziek	-ii- zintezketen	= vous pouviez être
Hek	-ii- ziteyken	= ils pouvaient être

33 - UKAN - Potentiel Imperf.

Nik	nukleen	= je pouvais avoir
Hik	hukken	= tu pouvais avoir
Zuk	zintezkeren	= vous pouviez avoir
Hura	zuketen	= il pouvait avoir
Gu	gintzeen	= nous pouvions avoir
Ziek	zintezketen	= vous pouviez avoir
Hek	zuketen	= ils pouvaient avoir